

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Gizartea eta eskola	141206	2024-2025
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
Lehen hezkuntzako gradua	1.	1.
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizkoa	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Pello Gondra Martinez pgondra@bam.edu.es pgondra@deusto.es 214. bulegoa		

Justifikazioa

Gizartea, Familia eta Eskola jakintzagaiaren barruan eskaintzen den Gizartea eta Eskola irakasgaiak hezkuntza-fenomenoa, maisuak bere lanbide-jarduera garatuko dueneko gizarte-testuinguruan txertaturiko eskola, ulertzeko oinarritzko tresnak ematen dizkio Haur Hezkuntzako graduako lehenengo mailako ikasleari, fenomeno horrekiko jarrera kritikoa bereganatzen laguntzeaz gain.

Esparru teorikoari dagokionez, Gizartea eta Eskola irakasgaiak diziplinarreko ikuspuntua agertzen du. Hezkuntzaren Soziologiak errealitatearen ikuspegi soziologikoa eranstean dio, eta gizartearen eta Haur Hezkuntzako eskolaren arteko loturak eta hezkuntza-instituzioaren beraren baitako dinamikak ulertzen eta ikusmolde kritikoaz behatzen laguntzen die maisu-maistragaiei. Balio demokratikoetan oinarrituriko hezkuntzaren hainbat osagai ere txertatzen dira, gizatiartzeko xedea duen heziketarantz jo nahian.

Irakasgaien jorratzen diren gaitasun orokorrak eta berariazkoak bereganaturik, Haur Hezkuntzako graduako ikasleek honako eginkizun hauek betetzeko besteko ezaupideak eta trebetasunak izango dituzte:

- Gaurko gizartean, familiarreko eta eskolako heziketarekin loturik, nabarmentasun handiena duten alderdiak ikusmolde kritikoaz aztertzea eta bere hausnarketa eta sortze-lanetan txertatzea.
- Maisu-maistren lanbide-eginkizunaren alderdi hezitzailea eta sozializatzailea eta gizarte-ingurune hurbilarekiko ezinbesteko lotura aintzat hartzea, norberaren hezkuntza-zeregina jarrera kritikoaz ulertuz.

Gizarteko errealitatea aztertzeke jarrera kritikoari heltzea eta berdintasunean oinarrituriko gizarte bidezkoa sustatzeko ekintzen beharraz ohartzea.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik

Garapen Jasangarriko Helburuak



EDS-ODS-OLS

Garapen Iraunkorreko 2030 Agenda pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana da, eta bake unibertsala indartzeko asmoa ere badu. 15 urteko epea ezartzen du Garapen Iraunkorreko 17 helburu lortzeko, 169 helmugatan zehaztuta.

17 helburu horiek MGHen (Milurtekoko Garapen Helburuak) lorpenetan oinarritzen dira, eta eremu berriak barne hartzen dituzte, klima-aldaketa, planetaren zaintza, desberdintasunak, berrikuntza, kontsumo iraunkorra eta bakea eta justizia.

Hiru dira 2030 Agendaren ezaugarri nabarmenenak: **unibertsaltasuna, inor atzean ez uzteko printzipioa** eta **17 GJHen integritasuna**.

- Esanahia eta helburuak
- Agenda 2030aren aurrekariak
- Helburuen erabilera
- Helburuen aplikazioa eskola proiektuetan

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- IDATZIZKO ADIERAZPENA, 1.maila: beste pertsona batzuekin eraginkortasunez erlazionatzea, norberak pentsatzen edota sentitzen duena argi adieraziz, idazkera eta adierazpide grafikoak lagun dituela.

Berariazko gaitasunak

- Hezkuntza-zereginaren alderdi hezitzaile eta sozializatzaileaz jabetzea.
- Gaurko gizartean nabarmentasun handikoak diren eta familiarteko zein eskolako heziketan eragina duten alderdiak --sozializazio-prozesuetan eta eskolaren gizarte-eginkizunetan isla duten gizarte- eta kultura-aldaketak, gizarte-bazterketa eta gizarteratzea, garapen jasangarria-- ikusmolde kritikoz aztertzea eta norberaren hausnarketetan eta sortze-lanetan txertatzea.
- Norberak taxutzen eta gauzatzen dituen jardueretan, eskola eta horren ingurunea lotzeko eta familiekin elkarlanean aritzeko balio duten elementuak erabiltzea.
- Zuzentasunean eta berdintasunean oinarrituriko gizartea sustatzeko berariazko ekintzak garatu beharraz ohartzea.

Edukiak

1. GIZARTEA, HEZKUNTZA ETA ESKOLA
2. ESKOLAREN GIZARTE ZEREGINAK
3. ESKOLA-SISTEMEN HASTAPENAK, BILAKAERA ETA KRISIALDIA
4. GIZATIARTZEN DUEN HEZKUNTZARAKO ERRONKAK
5. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK
6. XXI. MENDEKO HEZKUNTZAREN ERRONKAK: ESKOLA INKLUSIBO ETA JASANGARRIRANTZ

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaian lortu behar diren konpetentziak honako estrategiak erabiliz landuko dira:

- Ikasgaian landu behar diren **gaiak testuinguruan kokatzeko jarduerak**: eztabaidak sortu, abiapuntu hartuta taldekideen esperientziak, testu analisiak edota ikus-entzunezko euskarriak. Errealitate desberdinak ikuspegi kritikoaz aztertu.
- **Gogoetarako jarduerak**: gaiak lantzean edo landu ondoren, hausnarketak bideratu galdera, zalantza eta aukerak planteatuz edota erantzunez.
- **Kontzeptualizazioa**: ikasgaian zehar planteatzen diren edukien inguruko ulermen sendoa lortzera eta eduki horien aplikazioan trebatzera bideratutako ariketak.
- **Jarduera praktikoak**: ikasgelan zein ikasgelatik kanpo egingo diren jarduera aplikatuak (tailerrak, ariketen ebazpena, talde-lanak, eztabaidak...), gaien inguruko errealitateak aztertuz eta ondoren ikasgelan edo idatziz azalpenak eginaz.

Ebaluazio jarduerak: ikasgaian inguruan egindako lanari eta planteatutako erronkei buruzko ahozko eta idatzizko aurkezpenak, berariazko gaitasunen zein orokorren lorpena neurtzeko programatutakoak.

Ebaluazioa

Ikasgai honen prozesua eta beraren gaitasunen garapena ebaluatzeko, teknika hauek erabiliko dira:

- **Proba objektiboa: % 60**

- **Banakako edota taldekako lanak: % 40**

- Soziologa, pentsalari... bati buruzko informazioa bilatu (emakumezkoa). Egindako ikerketak, egindako lana, ze eragin gizartean. **Bikote-hirukoteka ODS**

- Talde lana 4-5 kide. Eskola ideala sortu: Kokapena, funtzionamendua, baliabideak, ezaugarriak... deskribatuz. ODS-GJH-ak aplikatu. Helburu ezberdinak lortzeko helmugak kontuan hartuta ekintzak burutu nire komunitatea hobetzeko.

Ikasgaia gainditzeko, aurkeztutako lanek unibertsitrate-ekoizpenei dagokien maila erakutsi beharko dute hizkuntza aldetik ere. Ikasgaia gainditzeko ikasgaian landuko diren ataza, jarduera, **froga GUZTIAK** gaindituta egon beharko dira.

Ordenagailuz idatzitako lanak bakarrik onartuko dira.

Adimen artifizialaren erabilera:

Adimen artifizialeko tresnak edo horien bidez sortutako edukien erabilera ikasgaiko zeregin eta lanen orientabide espezifikoetan arautuko da. Zer tresna eta nola erabil daitezkeen adierazten ez den bitartean, ez dago baimenduta horiek erabiltzea.

Dokumentazioa

- Barbero, J.I. (1993). Génesis y evolución histórica de la escuela; In Ortega, F. eta García de León, M.A..Sociología de la Educación. Barcanova, 73.-88. or.
- Cesáreo, V. (1986). Educación. Diccionario de Sociología. Paulinas, 580-89 or.
- Fernández Enguita, M. (2004). La escuela a examen. Pirámide.
- Fernández Palomares, F. (Koord.) (2009). Sociología de la Educación. Pearson.
- Giner, S. (1988). Sociología. Península.
- Lizcano, E. "La metáfora como analizador social" in CASTRO, I; CASTRO, M.A; MORALES, J. (2005) Metodología de las Ciencias Sociales, Ed. Tecnos, pp: 137-171.
- Ortega, F. eta García de León, M.A. (1993). Sociología de la Educación. Barcanova.
- UNESCO (1996). La educación encierra un tesoro, Santillana.
- UNESCO (1999). Hezkuntza: altxor ezkutua, Eusko Jaurlaritz.
- UNESCO (2007). Giza Eskubideen irakaskuntza. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeentzako jarduera praktikoak, UNESCO Etxea eta Eusko Jaurlaritz.